

Prioiaik nagusi

IV. Tesien Sarian

Andonegi Beristain, Garazi
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Behi eroen gaitzaren inguruan piztu zen polemika isildu bada ere, gaitz horren oinarrian dauden prioiekin egindako lan batek irabazi du IV. Tesien Saria. *La proteina que enloquece* (Erotzen den proteina) lana izan da, hain zuzen, irabazlea.

ZUBEROA MARCOS NAFARROAKO UNIBERTSITATEKO DOKTOREAK PRIOIAK ZER DIREN, non dauden eta nola bilakatzen diren prioia gaixo azaltzen du bere lanean. Izan ere, orain arte argitu gabeko galdera asko zeuden behi eroen gaitzaren gainean. Zer bide erabiltzen du prioia ahotik garunera iristeko? Animalia-espezie ezberdinetan bide bera edo desberdina erabiltzen du? Galdera horiei eta beste batzuei erantzuten saiatu da doktorea bere lanean.

Iker Zuriguel-en tesia izan da bigarren sailkatua. Ikertzaileak *¿Por qué agitanos el salero para echar sal?* (Gatza botatzeko zergatik astintzen dugu gatzontzia?) izenburudun tesia aurkeztu du. Eguneroko bizitzan maiz gertatzen den arazo bat izan du aztergai fisikariak. Zerk eragiten du kolapso edo pilaketa bat? Zein da faktore garrantzitsuena? Tesia siloekin egin du, jakiteko zein den siloen irteeran kolapso bat



Zuberoa Marcos, IV. Tesien Sariko irabazlea.

eragiten duen faktorea. Ondorioen arabera, nahikoa da irteerako zuloa alearen diametroa baino bost aldiz handiagoa izatea sistema inoiz ez kolapsatzeko. Iker Zuriguelek ere Nafarroako Unibertsitatean egin du bere doktore-tesia.

Zuberoa Marcosek ordenagailu eramangarri bat eskuratu du SISTEK informatica y microsistemas etxearen laguntzari esker. Bigarren sari gisara, landetxe batean asteburua igarotzeko aukera izango du Iker Zuriguelek, NEKATUR landa-turismoko elkartearen eskutik.

Epaimahaiaren iritzi bi lan horiek izan dira, hain zuzen ere, dibulgazio-lanik onenak. Hala ere, ez da erabaki erraza izan, lan askok lortu baitute dibulgazio-emaizta bikaina. Gaien konplexutasuna kontuan izanda, edonork ulertzeko eran idazteko ahalegina nabarmendu dute epaimahaikideek. Bi saridunen lanen

kasuan, irakurterrazak dira, terminologia egoki erabili dute, idazkera samurra eta zuzena darabilte eta tesiaren muina ondo azalduta dagoela iritzi diote epaimahaikideek.

Askotariko lanak

Guztira hogeita hiru lan aurkeztu dira IV. Tesien Sarira. Horietatik hamaika Euskal Herriko Unibertsitatekoak, lau Nafarroako Unibertsitate Publikokoak, zazpi Nafarroako Unibertsitatekoak eta bat ESTIAkoa (Ecole Supérieure des Technologies Industrielles Avancées).

Hizkuntzei dagokienez, lau laburpenek euskara izan dute hizkuntza nagusitatzat, hamaseik gaztelania, bik ingelesa eta batek frantsesa.

Saritutako lanak eta gainerakoak www.basqueresearch.com web gunean daude ikusgai.